

## 7. BALIABIDEAK

Behar ditugun funtsezko baliabideen artean, ez dugu dirurik bakarrik behar. Horretaz aparte, ezagutzak, harreman-sareak, teknologiak, hornidurak, zerbitzuak eta jarduteko leku fisikoa behar dira. Baliabide hauek eskuratzeko hurrengo pausuk jarraitu beharko ditugu; Finantza baliabideak, hilabeteroko harpidetzaren bitartez lortuko dugu.

Gure zerbitzuak nahi dituzten ikasleek diru kantitate txiki bat ordaindu beharko dute. Baliabide fisikoak, inbertsio bat egingo dugu eta ordenagailuak erosiko ditugu. Baliabide intelektuala, gure enpresari patente bat egingo diogu eta horrela gure zerbitzua babestuko dugu. Azkenik giza baliabideak, pertsonala kontratatuko dugu, informatikariak eta irakasle gazteak.

Baliabide guzti hauek lehenengo egunetan behar izango ditugu gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, batzuei besteak baino prioritate handiago bat ematen bereziki, baliabide fisikoei hala nola; ordenagailuei.

Baliabide guzti hauen artean, garrantzitsuenak finantza baliabideak eta baliabide fisikoak dira, bai eta garestienak. Hauek garrantzitsuenak dira, baliabide hauek erabili barik ezin dugulako proiektua aurrera eraman. Baliabide hauek denboraren joanean hobetzen hasi ahalko gara, adibidez ordenagailu hobetoak erosten edo jende gehiago kontratatzen.

Hasieran, kostuak murriztu beharko ditugu, gure diru sarrerak nahiko handiak izango direlako eta diru kopuru hau igo ez dadin, egin beharko dugun erabakietako bat adibidez, gure langileei ez jartzea hain soldata altuak edo hauen soldata lehenengo hilabeteetan estandarra izatea eta gero denbora aurrera jarraituz gero hauen soldata igo ahal izateko posibilitatea izatea.

